

BERANKORREN FITXATEGIAK

NOLA
IRTEN



Zer dira eta noiz sar zaitzakete

Ez ordaintzei buruzko informazioa jasotzen duten fitxategiak dira. Halako batean bazaude, mailegu bat eskuratu, kreditu-txartel bat zureganatu edo telefono-konpainiaz aldatzeko aukera ukatu diezazukete, kaudimengabea zarela ulertuta. Enpresa batek fitxategian sar zaitzan, **gehienez 6 urteko antzintasuna** duen **zorra** eduki behar duzu eta **ordainketa-eskaria bidali** behar izan dizute.

! Ez da gutxieneko zenbatekorik behar fitxategietan sar zaitzaten

Nola jakin fitxategiren batean ote zauden

Fitxategiak **bertan zaudela jakinarazi** behar dizu, gutun bidez, zure datuak jakinarazten direnetik **30 eguneko epean**. Jakinarazi ez arren, bertan **agertzen zaren jakiteko eskubidea** duzu (informazioa eskuratzeko eskubidea), bai eta dirurik zor ez baduzu **bertatik ezabatzeko eskatzeko** eskubidea ere (datuak ezerezteko eskubidea). Horiek baliatzea **DOAKOA** da. Gogoratu **hainbat fitxategi** daudela.

Hona hemen fitxategirik ezagunenak, horietan agertzen zaren kontsultatu dezakezu:



ASNEF-EQUIFAX

Fitxategia: ASNEF
Posta-kutxa 10546 - 28080 Madrid



EQUIFAX IBÉRICA, S.L.

Fitxategia: INCIDENCIAS JUDICIALES
Posta-kutxa 10546 - 28080 Madrid



EXPERIAN BUREAU DE CRÉDITO, S.A.

Fitxategia: BADEXCUG
Posta-kutxa 1188 - 28108 Alcobendas



INFORMA D&B, S.A.

Fitxategia: INCIDENCIAS JUDICIALES
Posta-kutxa 1189 - 28108 Alcobendas

Nola irten

- » Zenbateko bat **zor duzulako** fitxategiren batean agertzen bazara eta zorra **ordaindu** baduzu:
 - Enpresak ordainketaren **berri eman** beharko dio fitxategiaren arduradunari, zure izena ezaba dezan. Hala egiten ez badu, **idazki bat bidal** dezakezu, ordainketaren egiaztagiriarekin, agertzen zaren fitxategira, bertatik ezaba zaitzaten.
- » **Akats bat** edo **zor eztabaidagarri** bat dela-eta sartu bazaituzte edo zorra **6 urtetik gorakoa** bada:
 - Datuak **ezerezteko** eskubidez balia zaitzetzke. Bidali idazki bat ardura duen fitxategiari.

Gomendioak

- ✓ Kontuz ibili bajak **ustez doan** kudeatzen dituzten enpresekin. Harremanetarako telefonoak **tarifa gehigarria** kobratu ohi du (902, 807, etab.).
- ✓ Bidali dokumentazio guztia fitxategira posta ziurtatu edo burofax bidez, edota **hura bidali eta jaso dela agerrarazten duen** beste edozein bitarteko erabilita.
- ✓ **Hamar egun** balioduneko epean ez baduzu erantzunik jasotzen edo erantzuna egokia iruditzen ez bazaizu, **erreklamatu** Datuak Babesteko Espainiako Agentzian: @ www.agpd.es 901 100 099 912 663 517